

Gipuzkoako Batzar Nagusiak OSOKO BILKURA IBILTARIA
Oier Kortaren adierazpenak

Lehenik eta behin ongietorri Batzar Nagusietako lehendakari, Diputatu Nagusi, batzarkide eta herriko zinegotzi eta gonbidatu guztioi.

Ohore bat da Zumaiarentzat Gipuzkoako Batzar Nagusien osoko bilkura ibiltari hau gaurkoan hemen ospatzea eta bide horretan, eskerrak eman nahi dizkizuet guztiei gure herria aukeratu izanagatik. 1979an Gipuzkoako Batzar Nagusia berrezarri zenetik, 1995a izan zen horrelako bilkura bat Zumaian ospatu zen azken aldia.

Bilkura horretan hain zuzen izendatua izan zen garai hartako Gipuzkoako Diputatu Nagusia Roman Sudupe, zeinak ondoren 8 urte bete zituen karguan.

Edonola ere, argi dago orduz geroztik, 23 urte hauetan izugarri aldatu direla gauzak eta eskerrak, gainera, hori horrela izan den, Zumaia, Gipuzkoak, EAEk eta gizarteak, oro har, aurrera egiten duenaren seinale nabarmenena baita, hain zuzen, aldaketa hori.

Garaiak garai edota urteak urte, beti egin diegu aurre beldur edota erronka ezberdinei. Begirada atzera botaz gero, 23 urte atzera eginez gero, alegia, 1995ean, nagusi ziren Euskal Herrian, Gipuzkoan zein Zumaian ekonomia krisialdiaren zantzu zein ondorioak, baita noski, bakearen zein bizikidetzaren bidean ETAK sortutako izu zein gatazka politikoa. Eta zer esanik ez, noski, terrorismoak ekarritako sarraski, mehatxu, kalte eta minaren inguruan. Ehunka biktima, ehunka hildako, gaur egun gure oroimenean daramatzagunak egunez egun, zumaia, gainera, lehen pertsonan bizi baikenuen bortizkeria hori 5 herritarren hilketarekin, horietatik azkena, 2000. urtean, Joxe Mari Kortarena.

Gaur egun badirudi atzean utzi ditugula, azkenean, mehatxuan, beldurrean, indarkerian eta biolentzian oinarritutako urteak. Oraindik bide luzea gelditzen zaigu egiteke, noski, baina, esan bezala, aurrera goaz, guztiok elkarrekin eta elkarlanean, politika medio izanik bide horretan, politikak, hain zuzen, bere zerbitzua egiten baitu momentuko zein etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Ekonomia eta enplegua suspertzea, pertsonen segurtasuna, ongizatea eta bizi kalitatea hobetu zein bermatzea, hezkuntza arloa indartzea, etxebizitza aukera berriak eskaintzea edota ingurumena, gure balio eta ondare geologiko zein paisajistikoa dena, zaindu eta errespetatzea dira, esate baterako, Zumaian egun ditugun erronka nagusietako batzuk eta horretarako dihardugu gogor lanean, programa zein ekimen berriak sortuz eta bultzatuz: hor dugu, esaterako, berriki onartutako Turismo Plana, gazteen emantzipazioa bultzatzeko Alokairu Beka deituriko diru-laguntza programa, Eusko Jaurlaritzatik Zumaia Herri Eskolan eraikin berria egiteko lortutako akordio zein inbertsioa, Foru Aldundiak Algorri eremu naturala babesteko egindako esku-hartzea, Urola Kosta Udal Elkartetik sortutako laneratze programak, ekintzailetasuna bultzatzeko ekimenak,...

Guzti horretan, noski, bizikidetzaren, errespetuaren, berdintasunaren, gertutasunaren eta elkarlana dira gure lanaren ardatz nagusiak, eta pertsonak gure lehentasun, jomuga zein helburua, guzti horiek osatzen baitute, hain zuzen, egunerokotasunaren zein etorkizunaren giltzarria.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak OSOKO BILKURA IBILTARIA
Oier Kortaren adierazpenak

Bide horretan, beraz, orain arte egin dugun bezala, Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Udalekin eta EAeko erakunde nagusiekin herritarren zerbitzura jarraituko dugu lanean, gaur, bihar eta beti, lehen aipatu bezala, elkarrekin eta elkarlanean eraiki dezagun Gipuzkoaren etorkizuna.